

Milaka irri Usurbildik Etiopiara

- *Irrien Lagunak* Klubaren jaialdia antolatu dute irailaren 25ean Usurbilen
- Ekitaldiko irabazi guztiak *Etiopia Utopia* Fundazioarentzat izango dira



50. urteurrena ospatu zuen giro onean Buruntz Azpi elkarteak

Buruntz-Azpi elkarteak urrezko ezteiak ospatu ditu astebukaera honean egitarau zabal batekin. Herriko elkarte desberdinetako ordezkariak eta bazkideak bildu ziren larunbatean eginitako bazkari gogoangarrian. /4 orrialdea

Puzgarriak, haurrentzako jolasak, txotxongiloak, buruhandiak, tailerrak... denetarik egongo da irailaren 25ean Usurbilen antolatu den *Irrien Lagunak* klubaren lehenengo jaialdian.

Lehenengo asteazkenean aurkeztu zuten jaialdia Usurbilen.

Porrotxek azaldu zuenez, *Irrien Lagunak* Kluba "euskaraz pentsatutako, landutako eta sortutako proiektua da, alaitasuna eta balio hezitzaileak ere badituena". Osasuna, natura, zientzia, kultura eta elkatasuna dira Klubak bulztatu nahi dituen balio horiek.

Elkartasuna

Eta azken hori, elkartasuna izango da nagusi Usurbilgo pilotaleku inguruan egingo den festa handian.



Oraitz Gartzia, Pupu, Porrotx, Alaitz Aizpurua, Lore eta Iñigo Arandia. KATXIPORRETA

Prensaurrekoan azaldu zutenek, urtero elkarte bat gonbidatuko dute jaialdian parte hartzera.

Aurten Etiopia Utopia fundazioa izango da eta festa handi honetako irabazi guztiak elkarteak duen *Irriribreak*

proiektura bideratuko dira, Oraitz Gartzia elkarteko kideak azaldu zuenez.

Egitasmo honek ospitaleetako erizainak aho osasunean heztea du helburu eta honen lekuko izan ziren Porrotx eta Marimotots apirillean Etiopiara egin zuten bidaietan.

"Etiopian badakite irri ozen eta alai egiten, baina guk irribarre distiratsua, txantxarrik gabea egiten lagundu nahi diegu", azaldu zuten Porrotxek.

Honela, Etiopia Utopia fundazioak bazkari berezia antolatu du, Askatasuna plazan eta Eusko Label enpresak oilasko pintxoak eta sagardoa eskainiko ditu.

Ez ahaztu beraz, irrien lagun guztiak hitzordu berezia dutela irailaren 25ean, Usurbilen. •

Euriak ez zuen Erdi Aroko azoka ito

Ostiral, larunbat eta igande goiza oso euritsuak izan baziren ere, igande arratsaldean hobera egin zuen eguraldiak. Dena den, jende asko hurbidu zen Okendo plaza inguruan jarri ziren postuak ikustera. Ikuskizun asko bertan behera geratu arren, hiru egun hauetan haur, heldu zein gazte, denek izan dute Erdi Aroko Azokaz gozatzeko aukera, eguraldi petralari aurpegi ona erakutsiz. Aurten Okendon egin dute lehen aldiz azoka. /5. orrialdea



Jende ugari bertaratu da astebukaeran Erdi Aroko azoka ikustera, eguraldi txarrari aurre eginez.

ALBISTEA /3

Hamar urteko kartzela zigorra jarri diote Rafa Diez Usabiagari

ALBISTEA /3

Yoga eskolak hasi du ikasturte berria

KIROLA /6

Raul Ramos bikain aritu da zaldi lasterketetan



ika
haur eta gazteentzako jantziak



Geltoki Kalea 3 • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 045978

Etxeko langileak euskalduntzeko asmoa

■ Pertsona nagusien zaintzan edota etxeetan lan egiten duten langileei zuzendutako doako euskara ikastaro pilotua martxan ■ Nik ere Euskaraz Lanean NEL da proiektuaren izena

Nik ere Euskaraz Lanean (NEL) proiektua sortu dute Banaiz Bagara, Emun Koop., Caritas, Esperanza Latina, Donostia, Buruntzaldea (Andoain, Urnieta, Hernani, Lasarte-Oria) eta Villabonako Udalek. Ekimenarekin euskara ikasteko erraztasuna eman nahi zaie familia euskaldunetan lan egiten duten laguntzaileei.

Doako ikastaroa da eta langileek urria eta urtarrila bitartean 28 eskola ordu izango dituzte, hau da, astean bi ordu eskaini beharko dizkiote euskara ikasteari. Enplegatzaileen kasuan, zortzi tutoretza ordu izango dituzte, hilabetean bi.

Eskolak Donostian, Ategorrietan Caritas erakundeak duen 'Laguntza Etxean' izango dira. Lau hilabete iraungo duen esperientzia honetan langileak bere lanarekin lotutako esamoldeak, komunikaziorako egiturak eta hitzak ikasiko ditu eta, aldi berean, hizkuntza

berri bati hurbiltzeko teknikak. Familiak hilean behin egingo duen bi orduko saioan ikasiko du nola egin euskaraz hizkuntza oraindik gutxi menperatzen duen pertsonari ikasten laguntzeko.

Errealitate berriak

Egun, pertsona nagusiek familia eta batez ere, etxean bertan edo kanpoan bizi diren laguntzaileen beharra dute eguneroko bizitzan. Familia edo pertsona nagusi euskaldunen errealitatean, euren ohiko hizkuntza aldatu behar dute, lanbide horretan ari diren langileekin bere egunerokotasunean aritzeko. Hauek askotan beste jatorrizko hizkuntza bat duten etorkinak baitira.

Etorkinaren ikuspuntutik, euskara ikastea ez da erraza. Dirua eta denbora inbertitu behar ditu eta gainera, euskarak lanerako balio ez dion bitartean, ez du motibazioirik ikusten hau ikasteko.



Boris Nogales, Xabier Mendiguren, Petra Elser, Eider Alustiza eta Nora Urbizu aurkezpenean.

BANAIZ BAGARA ELKARTEA

Esperientzia honen ondorioak aztertuta, ekimena gizar-teko beste esparru batzuetara zabaltzea baloratuko da, agian nekazaritza edo ostalaritzara. Gainera, etorkizunean, bi aldeen interesa kontutan izanda, eta aipatutako behar horietatik abiatuz, euskara ikasten

duzentzat eta langilea bilatzen duten familientzat lan-poltsa bat sortuko litzateke.

Lehen esperientzia honetan hamabi familiek parte hartuko dute. Informazioa eskatu edota izena emateko interesa duenak 943 711847 / 645 733 818 telefonoetara deitu dezake,

emailaz banaiga@gmail.com helbidera zuzendu edota presentzialki, Donostiako Laguntza Etxera jo dezake, Intxaurren kalea, 30 zenbakian. Donostia, Buruntzaldea eta Villabonako udaletan ere NEL proiektuari buruzko informazioa eskuragarri dago. •

Buruntzaldeko euskaltegien matrikulazio epea zabalik

Eskualdeko euskaltegien izena emateko epea zabalik dago eta ikasturte berria aurkezteko agerraldi bateratua egin zuten euskaltegi eta sei udaletako ordezkariak. Euskaltegien eskaintza zabaldu aurkezteaz gain, herritarrak euskara ikastera animatu nahi izan zituzten bildutakoek.

David Rosco Urnietak euskara zinegotziaren hitzetan, eskualdean euskara ikasteko aukera paregabea dago. "Bate-tik, gertutasuna, herritar gehienek pauso batean dute euskaltegia. Bigarrenik, euskara ikasteko eskaintza zabaldu da eta hirugarrenik, euskara ikasleek udaletatik eskura ditzaketen diru-laguntzak daude".

Udaletxe bakoitzak diru laguntza hauek banatzeko era ezberdina izan behar du, baina iaz guztira, 119.700 euro banatu ziren diru laguntza gisa.

Lasarte-Oriako udalak 18.000 euro eman zituen eskaera eta baldintzak betetzen zituzten 86 ikasleren artean. Euskara ikasle kopuruari dagokionez, 730 izan ziren eskualdeko euskaltegien, 216 Lasarte-Orian.

Zerbitzu soziala

Olatz Urdanpilleta Lasarte-Oria eta Usurbilgo AEK-ko zuzendariarentzat, zerbitzu soziala da euskara ikasteko aukera izatea eta Buruntzaldeko herritarrek hau bermatu-

ta dute. "Helburua geroz eta hitzun elebakar gutxiago egotea izan behar du, gaztelaniar mintzatu eta bizi direnen kopurua apurka murriztuz."

Jesus Mari Asurabarrena Lasarte-Oriako udal euskaltegi-ko zuzendariak www.buruntzaldea.org webgunean eskuragarri dauden tresnen inguruko xehetasunak eman zituen. Euskara atalean, euskaltegiak arloan, euskaltegi bakoitzaren ordutegiak, maila edo urrats eskaintza eta prezioak ikus daitezke. Euskara ikasten hasi nahi dutenek, atal berean, diru laguntzak kontsultatu edota matrikula on-line egiteko aukera dute baita euren euskara maila neurtzeko testak ere. •



Usurbilgo Udaletxean bildutako eskualdeko euskaltegi eta udaletako ordezkariak

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Brihaspati maisuak ostiralean errealtatea bereizteari buruzko hitzakdia eskaini zuen.

Yoga Eskolak hasi du ikasturte berria

Irailen Yoga ezagutarazteko zenbait hitzaldi eta bideo emanaldi antolatuta ditu Sanatana Dharma Yoga Eskolak ikasturte berriari hasiera emateko. Jardun honetan aditu direnak arituko dira yogaren ikuspegi ezberdinak azaltzen.

Ostegun eta ostiralean meditazio eta mantra saioak eta hitzaldi bat izan ziren, aste honetan astelehenetik aurrera hasi berrientzat ikastaro teoriko eta praktikoa hasiko da eta hurrengo astean beste bi hitzaldi eskainiko dira.

Gitarrak honekin emango dio ikasturteari hasiera urtean zehar iluntzetan zabalik egoten den herriko Sanatana Dharma Yoga eskolak.

Ikastarora

Lasarte-Oriako Sanatana Dharma Yoga Eskolak ikastaro eta hitzaldiak eman ohi dio hasiera ikasturteari irailen ohiko ikastaro, eta yoga, garapen pertsonal eta meditazio saioekin hasi aurretik.

Horrela, astelehen honetan

hasi eta bi aste iraungo du irailaren 30era bitartean yoga hasitapenei buruzko ikastaroak Yoga Eskolan.

Egunero 19:00 eta 20:30 artean burutuko dira saio teoriko praktikoa.

Hitzaldiak

Bestalde, aurreko astean hasi zen hitzaldi sorta, osteguneko Meditazio eta Mantra saioarekin eta ostiralean Brihaspati adituak "Sobre el discernimiento: Viveka" hitzaldia eskaini zuen.

Hitzaldiak, hurrengo asteartean irailaren 27an jarraituko dute "Conversaciones con Dios" pelikularekin emanaldi eta ondorengo tertulierekin eta osteguneko 29an Vashistak *Osasun Integralari* buruzko hitzaldia eskainiko du.

Saio guztiak 19:00etatik aurrera izango dira Yoga eskolan bertan.

Eta urritik aurrera ohiko Yoga saioak, Meditazioa eta Mantrak, Garapen Pertsonal Taldean Eskolan kontsultatu daitezkeen ordutegiarekin. •

Rafa Diez-i hamar urteko kartzela zigorra jarri diote

Bateragune auziko bederatzi epaituek aurreko ostiralean jakin zuten Auzitegi Nazionaleko epaileen erabakia

Bateragune auziak badu epaia. Estatuko Auzitegi Nazionaleko laugarren aretoko epaileek hamarna urteko kartzela jarri diote Rafa Diez Usabiaga eta Arnaldo Otegi eta zortzinakoa Miren Zabaleta, Arkaitz Rodriguez eta Sonia Jacintorentzat.

Txelui Moreno, Mañel Serra eta Amaia Esnali, aldiz, ez dizkete kargurik egotzi eta aske geratuko dira.

Indar subiranistak batu

Auzitegi epaileek Diez eta Otegi talde terroristaren buruzagi izatea egotzi diete, "sustatzaile, arduradun eta koordinatzaile" modura. Horregatik, fiskaltzaren eskaerarekin bat eginez, hamar urteko espetxe zigorra izango dute.

Ostiralean auzkeztu zuten autoaren arabera, ETAk 2008an Diez eta Otegi prozesu independentista lortzeko, indar subiranisten bat egitea planifikatu eta kudeatuko zuen taldea sortzeko eskatu zien.

Zabaleta, Rodriguez eta Jacintorekin batera taldea sortu eta honek, ETArekin agindua jasotzen zituela adierazten da autuan.

Hau guztiak frogatzeko, epaituek LAB sindikatuko egoitzan egindako bilerekin, Frantziara egindako bidaiekin, dokumentuekin, etab. baliatu dira auzitegi epamahaikideak.



Hamar urteko espetxe zigorra jarri diote Rafa diez Usabiaga herritarrari.

Astelehenerako deia

Rafa Diez Usabiaga astelehenean deitu dute Auzitegi Nazionalera epaiaren berri ofizialki eman diezaioten.

LAB-eko idazkari nagusi ohia, 2009ko urriaren 13an atxilotua izan zen LABen Donostiako egoitza nagusian Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzon epailearen aginduz. Beste bederatzi kidearekin batera, Batasunaren Mahai Nazional berriaren berrantolaketa prestatzen ari zirela leporatu zien.

Defentsak 2010eko martxoaren 8an Rafa aske uzteko eskaera egin zuen, ama zaindu zezan. Urte horretako api-

mila amaieran, Baltasar Garzon epaileak aske utzi zuen 30.000 euroko bermea jarri ondoren eta politikan aritzeko baldintzak ere ezarri zizkion.

Aurten, ekainaren 27an hasi zen epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalaren eta uztailaren 7an amaitu zuen.

Orduan, fiskalak Rafa Diez herritarrarentzat eta Arnaldo Otegiarentzat hamar urteko espetxe zigorra eskatu zuen Bateragunen "funtzio erabakigarria" zutelakoan. Defentsak epaituen absoluzioa eskatu zuen.

Epaia indargabetezko Auzitegi Gorenera jo dezake orain defentsak. •

ETA-ren aurkako mozioa baztertzeagatik haserrea adierazi du PSEk

Udalbatzarrak terrorismoaren biktimen alde egiteko eta ETArekin bat-bateko desegitear eskatzeko proposamena onartu ez izanagatik bere atsekabea agertu nahi izan du Lasarte-Oriako sozialisten udal taldeak. Idatzi baten bitartez, azken Udalbatzarraren gertatutakoaren inguruan bere iritzia azaldu nahi izan dute. PSE bereziki kritikoa da EAJ eta Herriarren Plataformak bozketan emandako ezezkoarekin.

Talde sozialistaren hitzetan "Bildu, EAJ eta Herriarren Plataformak aurkeztutako ordeko proposamenaren xedea sozialisten ahotsa isiltzea besterik ez da izan. Ezin dugu

ukatu Bilduk ETA talde terroristar arbuatzea aurrera pausua dela, baina EAJ eta Herriarren Plataformaren kasuan atzera pausua garbia da. Izan ere, zuzenbidezko estatua aho batez defendatzen dugunokin batu beharrean ezker abertzalearekin bat egin dute, gobernu akordioetako ezkutuko arrazoiengatik".

Atzera pausua deritzote, onartutako proposamenean ETArekin baldintza gabeko desegitea eta armen uztea eskatzen zen puntua atxikitzearen eskaerari, EAJ eta Herriarren plataformaren aldetik jasotako ezezkoari. "Horrela eraiki nahi dute bakea?"

Era berean, oso larria iruditzen zaie sozialistei EAJ eta Herriarren Plataformak terroristen atxilotzeak amaitzearen eskaera egiten duen proposamena onartzea, "hauek ETArekin hilketa eta estortsioarekin parekatuz. Honela defendatu nahi al dituzte askatasuna eta legaltasuna, gaizkileak patxadan haien delituak ordaindu gabe egonda?"

Bide okerra

Bi alderdiek "bide okerra" aukeratu dutela salatzen du talde sozialistak. Euren esanetan "gai honetan ez dago hitzerdika aritzerik. Biktimen alde zaude edo erasotzaileen alde. Hildakoen eta jazarriak

direnen alde edo hiltzaile eta jazarle direnen alde." Gai honetan distantziakidetasunak ez du balio euren ustez eta "EAJ-k eta Herriarren Plataformak jakingo omen dute nola aukeratu dituzten haien bide lagunak."

"Herriarren Plataformako bozeramaileak, Ana Isabel Prietok erakutsitako oldarkortasunak penatzen gaitu, Bildurekin duen akordioa defendatzeko, gure bozeramailea Jesus Zaballos eraso zuelako." Prietoren jarrera ez zaie egokia iruditzen "Prieto andereak ETArekin desegitea eskatzea gaiari bete-betean jotzea dela baderitzo, bere arazoa da. Lasarte-Oriako

biktimenganako elkartasuna udal gaia ez dela baderitzo, hark eman beharko ditu azalpenak. Jarrera aldaketa honek gure herria pankartak eta pintadak kentzen diren moteltasunarekin zer ikusia izango ote du?"

Akordio hertsia

Udal talde sozialistaren aburuz, ekintza guzti hauek Bilduk, EAJ-k eta Herriarren Plataformak gobernu akordio hertsia bat osatu dutela frogatzen du. "Nahiz eta oposizioan daudela esan, herritarrak gainatu nahi dituzte. Akordio hau suaren kontra babestua dagoela ikusten dugu. Maskarak kentzeko ordua dugu". •



Bazkide eta beste elkarreetako ordezkariak argazkia atera zuten bazkalostean Buruntz-Azpi elkartearen kanpoan. Egun osoan giro bikaina izan zen 50. ospakizunean.

Buruntz-Azpiren urrezko eztei ospakizun gogoangarria

Giro ona izan zen 50. urteurrena ospatzeko eginiko bazkarian

Jon ALTUNA EGITEGI

L arunbata euritsu esnatu bazen ere, ez zuen Buruntz-Azpi Elkartearen 50. urteurrenoko ospakizuna zapuzterik lortu.

Egun handia ospatzeko bazkari paregabea prestatu zuten Buruntz-Azpi kideek eta herriko elkarte zein eragile gehienetako ordezkariak izan ziren bertan gonbidatu modura. Besteak beste, Pablo Barrio alkatea eta Taxio Arrizabalaga zinegotzia bertaratu ziren Buruntz-Azpiren egoitzara.

Menu paregabea

Buruntz-Azpi lehendakari Joxe Manuel Aranburuk hitzaldi labur batekin eman zion hasiera bazkariari. Esker oneko hitzak izan zituen elkarteko bazkide guztientzat erta behin bere berbaldia amaituta, sabelak hasi ziren hizketan.

Betidantik eduki izan dute Buruntz-Azpi elkarteko bazkideek sukaldari trebe eta abilarren ospea, eta larunbateko

bazkarian argi erakutsi zuten hori. Hasteko, zizka-mizka batzuk jarri zituzten mahai bakoitzean. Ostean, legatza perrexil saltsan, txirla zein kokotxek lagunduta.

Eten bat eginez, limoizko sorbetea hartu zuten bazkide eta gonbidatuek, ordurarte jandakoa jaitsi eta txuletari sabelean leku egiteko. Amaitzeko, "Buruntza" postrea: Buruntza mendia, elkartearen egoitza, ehiza eskopeta eta arrantza kanabera irudikatuz egindako nahasketa berezia. Guztia, ardo eta sagadorekin, noski.

Bazkalosteko ekitaldiak

Behin tripak beteta, kantua eta trikitixaren txanda heldu zen. Trikitilariak lagunduta, Buruntz-Azpi elkartearen ereserki kantatu zuen Joxe Belartietak eta txalo zaparrada itzela jaso zuen.

Bestalde, tute eta mus txapelketetako sari banaketa egin zuten eta irabazleek alkatearen eskutik jaso zituzten oroi-garriak.

Lasarte-Oriako elkarte batzuek, oroigarri bat eman zioten Buruntz-Azpi, urrezko ezteiak bete dituela zoriontzeko eta argazkia atera zuten bazkarian egon ziren guztiak.

Ilunabarrean, toka txapelketa egin zuten, eta bukatzeko Lasarte-Oriako Ahuen eta Kataluniako Floristeria Mateo Morral taldeek kontzertua eskaini zuten. •



Bazkideen arteko txapelketen irabazleak Udal ordezkariarekin sariak jaso ondoren.



Joxe Belartietak Buruntz-Azpiren ereserki kantatu zuen trikitilarien laguntzaz.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxurifan

Odolkia- Solomo oniztutua

Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Basurde burua

Txistorra

Baseri pateaa



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Lasarte-Oria

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

MAiTE

ESTETIKAKO ARETOA

Uistin Kalea 1/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Pregoiarekin eman zitzaion hasiera ostiral arratsaldean Erdi Aroko Azokari.



Giro berezia izan da egun hauetan Okendo inguruan.

Erdi Aroko azoka, euritan blai

■ Eguraldi txarraren ondorioz hainbat jarduera bertan behera gelditu ziren ■ Okendo inguruan egin dute aurten ekitaldia

Ostiralean eman zitzaion hasiera Erdi Aroko Azokari, euripean. Bigarren aldiz ospatu da aurtengoan azoka herrian. Aurreko urtean, Dorre Plaza eta Brijidatarren aurreko parkean kokatu bazen ere, aurten Okendo Plaza eta Antonio Mercero Plazak hartu diote lekukoa.

Jende ugari bertaratu da aste-bukaera osoan zehar

antolatu diren ekitaldietara, haur, heldu zein gazte, denek izan dute Erdi Aroko Azokaz gozatzeko aukera, eguraldi petralari aurpegi ona erakutsiz.

Ostiral arratsaldean ekin zitzaion azokari, pregoilarien hizketaldiarekin. Xirimiriak gure herriko bazterrak zipirtzindu bazituen ere, herritar ugari hurbildu zen ilunabarretik hasi eta gauera

arte kaleko postu desberdinak ikustera. Giro ona zen nagusi eta erori ziren euri tanta apurrek ez zuten festa hondatzerik izan.

Larunbata eta igandea ordea, ez ziren horren onak izan. Izan ere, bi egunak oso kargatuak ziren programa aldetik printzipioz. baina hainbat ekitaldi bertan behera geratu ziren eguraldi txarra zela kausa. •



Aste bukaeran Erdi Aroan baino, Euri Aroan murgildu zela zirudien Lasarte-Oriak.



Ikuskizun batzuk bertan behera gelditu ziren eguraldi txarra zela eta.



Denetariko postuak aurki zitezkeen Lasarte-Oria erdigunean.



ANAIAK

JANTZI-DENDA

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386



Raul Ramos jockeya bikain bere "etxean"

■ Lasarte-Oriako zaldunak Gran Casino Nervion saria irabazi zuen ■ Amaitu da hipodromoko lasterketen udako denboraldia ■ Herriko zalditegi eta prestatzaileek zenbait sari lortu dituzte

Raul Ramos Lasarte-Oriako jockeyak Gran Casino Nervion proba irabazi zuen abuztuaren 8an Lasarteko udako zaldi denboraldiko 8. jardunaldian Washita zaldiarekin. Normalean Mijasko zaldi lasterketan parte hartzen du; Lasarten, aldiz, gutxitan aritzen da, baina aukera bat izan eta irabazi egin zuen. Bestalde, Mauri Delcher prestatzaileak hiru sari garrantzitsu irabazi ditu eta gainera bere aita omendu dute antolatzaileek, ia 50 urtean Lasarte-Oriako hipodromoan jardun ondoren erretiratu egin delako. Bestalde, sari garrantzitsuenak Osorio, Cuellarko markesak entrenatutako zaldiek eskuratu zituzten eta Urrezko kopa Frantziara joan zen.



Raul Ramos herritarrak irabazi du aurten Gran Casino Nervion saria Washita zaldiarekin.

ARGAZKIA: TXEMA VALLES

JON ALTUNA IZA

Lasarte-Oriako hipodromoko zaldi lasterketen udako denboraldian zenbait herritar nabarmendu dira. Batetik Raul Ramos jockeyak lasterketa bat irabazi zuen, prestatzaileen artean Mauri Delcher, Ana Imaz, Roman Martin eta Ramon Avial azpimarratu daitezke, baina Miguel Alonso, Sergio Vidal eta Juan Pedro Espinozak zaindutatako zaldi batzuk ere hor ibili dira tarteka lehen postuetan, Txema Valles adituak emandako informazioaren arabera.

Irailaren 4an Mauricio Delcher zaldi prestatzailea omendu zuen zaldi lasterketan antolatzen dituen Hipodromoa enpresak. Abuztuaren 15ean erretiratu zen ia 50 urtean hipodromoan aritu den prestatzailea, hain juxtu Urrezko Kopan Festeiro zaldiarekin hirugarren postua lortu eta gero.

Gainera Lasarte-Oriako zenbait zalditegi, esaterako, Ehun, Olabengo, Eva eta Rober omendu zituen Hipodromoak. Azken 20 urtetan kalerik egin gabe zaldi lasterketan parte hartu duten zalditegi hauen fidelotasuna eskerto nahi izan zuten antolatzaileek eta Ehun-eko Alberto Guinaldok, Olabengo Juanito Goyaranek, Eva Imazek eta Rober-ko Rosa Sanchezek jaso zituzten oroigarriak.

Mauri Delcher, omendua- ren semeak hiru sari nagusi eskuratu ditu aurten: hirugarren jardunaldian Coca Cola saria As de Trebol zaldiarekin, laugarren jardunaldiko El Pais Criterion-a Matusalem zaldi bikainarekin eta 13. jardunaldiko Vertical Saria berriro As de Trebolekin.

Herriko zalditegi eta prestatzaileen artean, aipagarria da gainera denboraldiko lehen zaldi lasterketa, A Galopar

Saria, irabazi zuela Ana Imaz prestatzaileak eta Lopetegui familiak hipodromoan bertan hazitako Leitzaran zaldiak.

Sari ugari

Bestalde, Alfonso Pérez eta Amaia Imaz lasarteoriatarren APAI zalditegiako Saioa bost urteko behorrak Hipodromoko Tabernak Saria eskuratu zuen hirugarren jardunaldian, eta Roman Martin zaldun ohia prestatutako Satcat behorra nagusitu zen 10. jardunaldiko Hotel Viura sari nagusian. Ramon Avial prestatzailea ere asko saiatu da azken bi hilabeteotan eta garaipen bat lortu



Mauricio Delcher omendua. J. ZATARAIN

zuen abuztuaren 25ean, Kirol Pentsaren saria, loritz Mendizabalek gidatutako Amarie Rober zalditegi behorarekin.

Sari garrantzitsuenak, Juan Miguel Osorio Cuellar-ko Markesak prestatutako zaldiek eskuratu dituzte, Donostiako Sari Nagusia, DV Saria, Kutxa Saria eta Foru Aldundiaren saria besteak beste eta Donostiako zaldi lasterketako garrantzitsuenak, 43. Urrezko Kopa ere eskuratzetik gertu izan zen Markesa Abdel zaldiarekin, baina bigarrena izan zen. Sari nagusi hau Frantziara joan zen, Jo All The Way zaldiak irabazi zuen. •

Ibarburu bigarren Kontxako igeriketa zeharkaldian

Iñigo Ibarburu lasarteoriatarra bigarren izan zen irailaren 10ean Kontxa Badiako LXVIII. Igeraldian. Buruntzaldea IKT taldekide Itsaso Tolosa hernaniarra aldiz hirugarren sailkatu zen zeharkaldi herrikoian.

Buruntzaldea IKT Igeriketa taldeko hamar igerilarik hartu zuten parte Kontxako Badiako Igeriketa Zeharkaldian.

Eguraldi ona eta giro bikainarekin Donostian izan ziren Igeriketa taldeko Haitz Mitxelena, Mikel Esnal, Naroa Goikoetxea, Alazne Egiazabal, Kevin Iglesias, Mikel Arribillaga, Itsaso Tolosa, Iñigo Ibarburu, Jone Vazquez eta Garazi Alkorta; zeharrentzat esperientzia berria izan zen, ur irekietan igeri egiten zuten lehen

aldia zelako, eta denak oso gustura atera ziren.

Infantil mailako Itsaso Tolosa, Iñigo Ibarburu, Jone Vazquez eta Garazi Alkorta emaitza oso onak lortu zituzten 750 metroko frogan.

Mutiletan, Iñigo Ibarburu bigarren izan zen, 8' 31" denborarekin proba burutu eta helmugan lehenengoarekin batera sartu arren. Nesketan, Itsaso Tolosa hirugarren izan zen distantzia bera 10' 18" denboran burutuz. Bere atzetik sartu ziren Garazi Alkorta (txipak huts egin zionez ez dakizkigu denbora eta postua) eta Jone Vazquez (10garren, 11'01" denborarekin).

Nagusiek aldiz, 2.200 metroko luzeari egin zitoten

aurre. Mutiletan taldekideen artean azkarrena Haitz Mitxelena izan zen, seigarren 28'26" denborarekin. Bere atzetik sailkatu ziren Mikel Esnal (14., 32'08") eta Mikel Arribillaga (31., 35'03"). Nesketan, Alazne Egiazabal izan zen azkarrena, 12. 32'21 denborarekin eta bere atzetik sartu zen Naroa Goikoetxea 36'36" denborarekin 25.

Borja Apeztegia entrenatzaileak adierazi duenez, igerilariak denboraldi berria "modu desberdinean hasteko" balio izan zuen probak. Bere iritziz, "urte hasiera izanik, helburua lehia bizian aritzea izan ez bazen ere, oso txukun aritu ziren gure igerilariak". •



Badiako zeharkaldiarekin hasi zuten denboraldi berria Buruntzaldeko igerilariak.

Egunero

Erakusketa

AIZE OTANOREN *BEGIRADAK* erakusketa zabalik da irailean zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN



Igandea, 25

Magia ikuskizuna

RAFAFA MAGOAK haurrentzako magia ikuskizuna eskainiko du UDABERRI TABERNAN, 11:00etan

Asteartea, 27

Hitzaldia

Haur eta nerabeen guraso eta hezitzaileentzako hitzaldien zikloaren barruan, "NERABEAREN ESPAZIOAK" Meskal Rosen eskutik. MANUEL LEKUONA KULTURETXEAN, 18:00etan



Udazkenari ongi etorri goxoa

ZABALETA AUZOKO lagunek Udazken festarekin agur egingo diote urtaro berriari. Lehenik 19:30ean, Ainhoa Neberuelek "Euskal Herriko baserrien arkitektura" hitzaldia eskainiko du eta ostean, 20:30ak aldera, sardina goxoak dastatzeko aukera egongo da.

OSTIRALA, 23

19:30ETIK AURRERA

ANTONIO BLAS PLAZAKO GARAJEAN

Asteartea, 27

Bideoforuma

JAINKOAREKIN HIZKETAN filma ikusi eta solasaldia egongo da. SANATANA DHARMA YOGA ESKOLA, 19:00etan, GAZTELANIAZ

Osteguna, 29

Hitzaldia

Vashistak OSASUN INTEGRALARI buruz hitz egingo du. SANATANA DHARMA YOGA ESKOLA, 19:00etan, GAZTELANIAZ

Liburutegiko udako ordutegia

Astelehenetik ostiralera 08:00 - 14:00 eta
astelehen arratsaldetan 16:00 - 20:00

Larunbatetan itxita

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Oharrak

Artista eta musikariek deialdia

Xpressionk Kultur Elkarteak Lasarte-Oriako musikari, aktore eta edozein esparruko artistak, kultur etxeko kafetegiko eta Jalgi Kafe Antzokiko ekimenetan parte hartzera gonbidatu nahi ditu.

Elkartearekin harremanetan jartzeko *jokin@xpressionk.net* helbidera mezu elektronikoa bidali edo 943 368 137 zenbakira deitu.

Udal Dantza Eskola

Lasarte-Oriako Udal dantza eskolak urriaren 3an emango die hasiera aurtengo ikastaroari. Heldu, zein gaztetxoei zuzendurik dauden ikastaroak dira dantza eskolak eskaintzen dituenak.

Matrikulatzeko epea irailean 30a arte izango da irekia, Kulturetxeko hirugarren solairuan.

Maria Auxiliadoraren meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da

irailaren 23an, ostiralean, arratsaldeko 17:30ean.

Zaharren omenaldiko bazkariko txartelak

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte zerbitzuak sailak jakin arazi du urriaren 2an izango den zaharren omenaldiko bazkariko txartelak agortu direla.

Emakumeen saskibaloitza taldea

Ostadarrek Saiarre Kirol Taldeak 1996 eta 1997. urte bitartean jaiotako emakumezkoen saskibaloitza taldea osatzeko deialdia egiten du.

Izen ematea Ostadarren egoitzan, Geltoki kalea 25, egingo da eta epea irailaren 20an bukatuko da.

LOKEko tenis eskola

Lasarte-Oria Kirol elkarteak tenis eskolak 2011-2012ko kurtsoari eman dio hasiera. Ataleko arduradunek jakin arazi dutenez, ordutegi eskaintza aurreko urteko bera izango da.

Izena emateko edo informazioa eskuratzeko kirol gunera hurbildu, 18:30etik aurrera, edo 647 156 146 telefono zenbakira deitu behar dute interesatuek.

Gimnasia Erritmikoa

Lasarte Oriako Kirol Elkarteak gimnasia erritmikoko taldea asteazkenean hasi zen lanean.

Ordutegiak ohi bezala, gimnasten maila eta kategoriararen arabera sailkatu ditu. Saioak asteazken, ostegun eta ostiraletan 19:00etatik 20:00etara izango dira eta larunbatean 12:00etatik 14:00etara.

Hautetan izena emateko aukera dago entrenamendurik gerturatuta edota Maiterekin kontaktuan jarrita 676872029 telefonon.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Asko hitz egin eta gutxi egin

Urte latza izaten ari da 2011. Eta zer esanik ez udara. Emakumeon kontrako indarkeriak ez du etenik izan eta egunak pasa ahala herri eta hirietako jaietako datuek ez dute kontrako esaten. Urtea abiatu zenetik 7 erailketa kasu eza gutu ditugu, Yanela, Amaia, Jone, Rosario, portugaleten egondako erailketa, Deisy eta Sophie. Noraren kasuak argitu gabe jarraitzen du eta hori gutxi balitz, guztiok disfrutatu beharko genituzkeen jaiak emakumeentzako espazio eta momentu arrotzak bilakatu dira, egon diren eraso andana tarteko.

Iruñan 4 bortxaketen berri izan genuen, Baionan beste hiru, Donostian eta Bilbon hainbat bortxaketa salaketa eta eraso, eta beste zenbait herrietan jai eremuan eraso sexista zein eraso lesbobobo eta homofobiko anitz gertatu direla jakin dugu. 16, 22, 40...adin tarte guztietan. Iruñan, Baionan, Bilbon, Donostian, Ordizin, ... herri eta txoko guztietan. Irainak, jazarpena, ikutuak, penetrazioa, ... adierazpen forma guztietan. Horregatik ez gara errepikatzeaz nekatzen. Emakumeon kontrako indarkeria ez da gutxi batzuei gertatzen zaien kontua. Ez da etxe barruan edota harreman afektibo bat tarteko dagoean bakarrik gertatzen ere. Ez dira beraz kasu isolatuak.

Emakumeon kontrako indarkeria Euskal Herrian dugun egiturazko arazo politiko, sozial eta ekonomiko larrietarikoa da, sostengatzen dugun jendarte antolaketatik eratortzen den arazoa. Jendartearen emakumeok pairatzen dugun zapalketa mantentzeko erabiltzen den tresna da, sexuen artean egun dauden botere eta menpeko harremanak betikotzeko arma.

Denok dugu ardura jendarteko gertakarietako eta horregatik gure apostua beti, jendarte guztiaren implikazioa, aktibazioa eta erantzuna bilatzea da. Baina instituzio publiko politikoak kudeatzen dauden politikariek ardura eta erantzunkizuna dute. Zoritxarrez, adibide oso argiak ditugu gurean. Rosario Romanen kasuan edota Deisy Mendozaren erailketan ere, salaketa jarrita egon arren babes falta nabariagatik erail zuten bere bikote ohiak. Erakundeek, haiek jarritako hainbat neurri aplikatu ez zituztelako. Iruña edo Baionako festetan bezalaxe. Jakinda aurreko urteetan

indarkeria sexista kasuak egon direla ez dute inongo prebentzio lanik egin. Horrela, prebentzio lana, urgentziatzako neurriak eta erantzuna herritarren esku gelditu dira beste behin ere.

Aski da! Arazoak duen dimentsio guztia kontutan ez hartzeaz. Datuak izkutatzeaz. Partxeak jartzeaz, neurri eskasak ez aplikatzeaz. Aldaketarako borondate politikorik ez izan eta emakumeon eskubideen defendatzaileen gisara agertzeaz.

Arazoari errotik egin behar diogu aurre, pertsonen arteko harreman sozial berriak eraikei eta zapalkuntzarik onartuko ez duen jendarte justuago bat eratzeko. Eta bide luze horretan badugu nondik hasi.

- Izandako salaketa eta kasu guztien gaineko jarraipena exijitzen dugu, eta horiek egiditeko neurri errealak eta eraginkorrak jartzea.

- Borondate politikoa, martxan jarritako neurri eta protokoloen errebisio sakona, hori aurrera eramateko aurrekontuak onartzea eta euren arteko koordinazioa lantzea oso garrantzitsua dela uste dugu eta lan hau, herritarrok baina instituzio publikoei dagokie.

Udara amaitzeaz dago baina ez aldir herrietako jaiak. Ez dugu Iruña edo Baionan gertatukoak berriro gertatzerik nahi. Ez ditugu erailketa eta eraso sexista gehiago onartuko. Instituzioetatik jarrera aldatzen ez den bitartean emakumeak arrisku egoeran jarraitzen dugu. Ez gara geldirik geratuko ordea. Emakumeok eskubidea daukagu jaietaz disfrutatu eta lasai bizitzeko eta horregatik gure burua eta ingurukoena zaizinduz eta babestuz, gure defendatzeko kapazidadean sinistuz eta autodefentsa feminista praktikan jarri, jarraituko dugu aurrera.

Era berean mundu martxako plataformatik emakume bat erailtzen dutenean aurrera eramaten dugun erantzun protokoloa ahalik eta herri gehienetan martxan jartzeko gonbidapena luzatu nahi dugu. Prentsa idatzian berria aterata eta 24 ordutara herrietan kontzentrazioak eta mobilizazioak zabaltzeko deia luzatu nahi dugu.

Aski da! Indarkeria sexistari aurre egin! Emakumeok autodefentsa!

Euskal Herriko emakumeon mundu martxako plataforma

Aize Otaño Artista

“Ume pobreen begiradak margotu ditut”

Donostiarrak Arte Ederrak ikasten ari zela egindako akuarelak zintzilikatu ditu Jalgin

Aize Otaño, donostiarraren bigarren erakusketa da Jalgikoa. Donostiako Rekalde tabernan erakutsi zituen lehen aldiz bere lanak eta orain Jalgi Kafe Antzokira ekarri ditu. 2011n Leioako Arte Ederretako fakultatean azken ikasturtean akuarelaz egindako erretratuak zintzilikatu ditu. "Normalean olioa erabiltzen badut ere akuarelarekin egindako nire lehen lanak dira hauek" aitortu digu donostiarrak.

JON ALTUNA IZA

Aurpegi eta begiradak margotu zituen akuarelarekin Aize Otañoek eta lan hauekin "begiradak" izeneko liburu bat egin zuen ondoren. Orain Jalgin jarri eta iraila osoan ikusi daitezke.

Noiztik ari zara margotzen?

Batxilergo artistikoa egin nuen, eta gero Arte Ederrak ikasi ditut Leioan.

Eskolarako derrigorrez egindako lanak al dira?

Ez. Ikasgai batean akuarela erabili behar zen eta jakin

gabe hasieran beldur pixka bat nion, zer egingo ote nuen, akuarela ez da eta erraza, baina gero probatu eta ez nuen arazorik izan. Begiradetan interesatuta nengoen, umeen pobreen begiradetan, ez dira eta berdinak. Beraz internetetik ateratako argazkietan oinarritu naiz.

Ba al duzu kuttunen bat?

Lehenengo egin nituen biak agian.

Margotzen jarraitzeko asmorik ba al duzu?

Bai, eta akuarelarekin jarraitzekoa ere bai, eskaerak egin



Aize Otaño, Jalgiko erakusketan, egin zituen lehen bi akuarelen aurrean.

dizkidatelako. Gainera akuarela oso azkarra da eta etxean margotzeko ere ez dago arazo handiegirik.

Gustatuko litzaizuke zaletasuna ogibidea bihurtzea?

Gustatu bai, baina badakit oso zaila dela. Irakaskuntzan saiatuko naiz. Irakasle izateko masterra aterako dut.

Salgai daukazu Jalgiko erakusketan lan batzuk...

Bai, baina, lehenengo, pena ematen du saltzeak. Nire amari denak gustatzen zaizkio eta berarengatik salduko ez banitu hobe. Denek daukate zerbait. Salduko ditudala pentsatuz egin beharko ditut. Horrela eginda agian pena txikiagoa emango dit.

Jendeari lanak erakustea gustatzen al zaizu?

Bai, lagunak ikustearekin jada pozik nago. Jendea gustatzen zaion bitartean...•

Euskara ikasteko aukera ona eta merke

Diru-laguntzak %40 - %75 2011-2012

Edozein lasarteoriarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza.

Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Beko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 16ra

Muntteri AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behe
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@ae.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 30era

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org


